

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3203

AGINDUA, 2014ko uztailaren 1ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2014an egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoría absolutuan parte hartzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezartzen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak, agindu honen bidez, diru-laguntzen lerro bat ezartzen du nazioarteko esparrua eta izaera duten kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzen laguntzeko kirol-erakundeei.

Deialdi hau egiten da Eusko Jaurlaritzaren iritziz oso garrantzitsua delako nazioarteko kirol-lehiaketetan parte hartzera zuzendutako jarduerak sustatzea, hori funtsezko elementua baita euskal kirola nazioarteko esparruan egon dadin, eta kirol-jarduera sustatzeko oro har.

Hortaz, kirol-jarduerak diru-laguntzak jaso ahal izateko zer eskakizun eta irizpide bete behar dituzten zehaztu behar da, bai eta aipatutako diru-laguntza horien eskabidea, izapideak eta emakidak erregulatzeko arauak ezarri ere.

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– 2014an egingo edo hasiko diren kirol-lehiaketa ofizialetan, nazioarteko esparrua eta izaera dutenetan, kategoría absolutuan parte hartzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezartzen du agindu honek, artikulua honetan jasotzen diren baldintzei jarraiki.

Agindu honen ondorioetarako, nazioarteko esparrua eta izaera duten kirol-lehiaketa ofizialtzat joko dira nazioarteko federazio baten, Europako federazio baten edo nazioarteko profesionalen liga baten egutegi ofizialean sartzen diren lehiaketak.

Goi-mailako kirola sustatzeko xedea izan behar dute lehiaketa horiek. Ez da diru-laguntzarik emango funtsean partaidetzako kirola sustatzera bideratuta dauden jardueretarako (jolaserako, aisiarako eta osasunerako kirola), ez eta euskal kirol-selekzioek parte hartzen duten kirol-lehiaketetarako ere.

2.– 2014. urtean hasten diren ekitaldietarako ematen diren diru-laguntzak ezingo dira erabili urtealdi horretatik kanpoko gastuak ordaintzeko. Honako gastu hauek izango dira diru-laguntzaren xede: garraioa, ostatua, ekipajea eta logistika.

3.– Onuradunek konpromisoa hartzen dute Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren laguntza izan dutela adierazteko ekitaldiko parte-hartzea hedatzeko edozein bitartekotan, eta ekitaldian parte hartzearekin lotutako ekitaldi publikoetara gonbidatzeko Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritza, diru-laguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; hala bada, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten dokumentu guztietan adierazi beharko dute hori.

4.– Edonola ere, ezin izango dute modalitate honetako diru-laguntzarik jaso, eta, beraz, deialdi honetatik kanpo geratutako dira, bi sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatzen ez duten proiektuek.

2. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Zenbateko honetan finkatu da deialdi honek aurreikusitako diru-laguntzen guztizkoa, gehienez ere: hirurehun eta berrogei mila (340.000) euro. Horietatik, 210.800 euro 2014 urterako ordainketa-kredituari dagozkio eta 129.200 euro 2015erako konpromiso-kredituari.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte legez eratuta eta dagokien erregistroan inskribatuta dauden eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten kirol-klubek, kirol-elkarteek eta helburutzat kirola duten nortasun juridikoko erakundeek. Kirol-federazioek ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu.

2.– Ezin izango dute deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean zehar, laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalen bat duten pertsonak, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren bat dutenek ere. Halaber, ezin izango dute diru-laguntzarik eskatu, zehapenak ezarritako epean zehar, sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalen bat dutenek, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

3.– Beti ere, onuradunei diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak, eta zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea. Orobat, eta dagokionean, ezinbestekoa izango da diru-laguntzak itzultzeagatiko betebeharrak ordainduta izatea.

4.– Era berean, onuradunek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituztenak betetzeari dagokionez.

4. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Laguntzen zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionalaren irizpidea erabiliko da. Alegia, eskabideek aurreko atalean ezarritako irizpideei jarraiki balioespen-fasean lortu duten puntuzioaren arabera banatuko da proportzionaliki agindu honen 2. artikuluan adierazitako diru-kopuru osoa, betiere, ezarritako gehienezko diru-kopurua errespetatuz, edo, txikiagoa bada, eskatutako kopurua.

2.– Jarduera bakoitzeko diru-laguntza laurogeita hamar mila (90.000) eurokoa izango da gehienez. Diziiplina ez olinpikoetako jarduera bakoitzarentzako diru-laguntza kirolari bakoitzeko hamar mila (10.000) eurokoa izango da gehienez.

3.– Futboleko Liga Profesionalean, Asobalen, ACBn eta gizonezkoen txirrindularitzako Ruta UCI Pro-Teams-en parte hartzen duten erakunde onuradunek agindu honen aurrekontu-zuzkiduraren %25 jaso ahal izango dute gehienez jasotako kopuru guztiak batuta.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabideak modu presentzian edo bide elektronikoz izapidetu ahalko dira. Kanal bat edo bestea erabiltzeak ez du esan nahi prozeduraren hurrengo izapideetan bide bera erabili behar denik, edozein unetan alda baitaiteke.

3.– Modu presentzian, eskabideak (I. eranskina) Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio, deialdiaren eranskinetan eskatutako agiriekin batera (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz), edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren Erregistro Orokor Nagusiaren edo erregistro osagarrien bulegoetan aurkeztu ahalko dira (bulego horiek zerrendatuta daude apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoan, I. eranskinean, EHAA, 201. zk., 2008ko maiatzaren 30ekoa), bai zuzenean edo bai azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-deari buruzkoan, ezarritako bideetako edozein erabiliz.

4.– Izapidetze elektronikoa, pertsona edo erakunde interesdunek euskadi.net egoitza elektronikoa bidez eskatu, kontsultatu eta gauzatu ahalko dituzte prozedura honekin lotutako izapide guztiak, helbide honetan:

https://www.euskadi.net/y22-izapide/es/contenidos/ayuda_subvencion/14_klp/es_dirulag/dirulag.html

Eskabidea egin eta gero egin beharreko izapide elektronikoa honako helbide honetan egingo dira:

<http://www.euskadi.net/misgestiones>

5.– Erakunde edo pertsona eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelan aurkez dezakete, nahi duten eran. Era berean, prozedura osoan zehar, erakunde/pertsona eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzkoak, 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezartzen duen moduan.

6.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

6. artikulua.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, behar adina aldiz, laguntzak eskatu dituzten erakundeek/pertsonak beren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela, eta, horretarako, ez da behar erakunde/pertsona eskatzailearen oniritziarik, beti ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuenak, xedatutako baldintzetan.

2.– Laguntza eskatzen duen pertsonak/erakundeak beren beregi onartu ahal izango du organo kudeatzaileak gainerako datu edo dokumentu horiek lortzea edo egiaztatzea, hala bide presentziala nola elektronikoa erabiltzen duenean. Hori gorabehera, Herri Administrazioak egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatzeko eskumenak ditu.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak 50.6 eta 51.1 bis artikuluetan xedatutakoa aplikatuz, erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko da, normalizatutako eskabidean, honako betebeharrak hauek bete direla:

– Helburu berarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk eman-dako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

– Eskaera egiten duen pertsonak edo erakundeak ez du izan behar diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zigor administratibo edo penalik, eta ezta diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak barne, hala xedatzen baitu otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, zken xedapenetako seigarrenean.

– Eskatzaileak egunean izatea indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala, ekonomia-jardueren gaineko zerga barne.

– Halaber, eskatzaileak adierazi beharko du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela indarrean dagoen araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizunak.

4.– Pertsona juridikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan izena emandako erakundeak izanez gero, izen-emate horren egiaztatzea.

Erregistro horretan inskribatuta ez badaude, erakundearen eratze-eskritura eta estatutuak, bai eta dagokion erregistro publikoen izena ematearen egiaztatzea eta pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren zein horrek duen ordezkapen-ahalmenaren ziurtagiriak.

Pertsona fisikoek, beren datuak bide elektronikoz egiaztatzeak onespina ematen ez dutenean, NANaren fotokopia eta helbideratze-ziurtagiria aurkeztuta kreditatu beharko dute beren nortasuna eta helbideratzea.

5.– Erakunde eskatzaileak honako hau bermatu beharko du:

– Bi sexuen arteko tratu-berdintasuna kirol-lehiaketetan.

– Erakunde eskatzaileak hedatzeko edozein bitartekotan adieraziko duela Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren laguntza izan dutela ekitaldian parte hartzeko, eta ekitaldian parte hartzearekin lotutako ekitaldi publikoetara gonbidatuko duela Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritza, salbu eta diru-laguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada; azken kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten dokumentu guztietan adierazi beharko dute hori.

7. artikulua.– Jarduera azaltzeko dokumentazioa.

1.– Jardueraren memoria (II. eranskina).

Honako alderdi hauei buruzko azalpen-memoria aurkeztu beharko dute:

– Balioetsi beharreko lehiaketak.

– Proba hori programa olinpikoan sartuta dagoen ala ez.

– Lehiaketa-maila.

– Lehiaketan parte hartzeko sistema: sailkapen-sistemaren bat ote dagoen edo ez.

- Lehiaketa-eremua. Mundukoa edo kontinentekoa.
 - Balioetsi beharreko lehiaketan edo lehiaketetan kirolariek eskuratutako postua. Artean ez bada lehiaketa egin, aurreko urtean lehiaketa horretan edo maila horretako edo altuagoko lehiaketetan (halakorik egonez gero) eskuratutako emaitzak egiaztatu beharko dira.
 - Parte-hartzearen jarraitutasuna. Zenbat urtetan parte hartu duten nazioartean azken 10 urteetan.
 - Lekualdatutako kirolari eta teknikarien kopurua: jardunaldi-kopurua eta horiek non egin diren, bai eta lehiaketa-tokira bitarteko distantzia ere.
- 2.– Diru-laguntzaren xede izango litzatekeen proba barne hartzen duen nazioarteko federazioaren, Europako federazioaren edo nazioarteko profesionalen ligaren egutegi ofiziala, bai eta ekitaldia antolatzen duen erakundearekin eta dagokion nazioarteko federazioarekin, Europako federazioarekin edo profesionalen ligarekin harremanetan jartzeko helbide bat ere.
- 3.– Dagokion federazioaren ziurtagiria, lehiaketan eskuratutako kirol-emaitza egiaztatzen duena. Artean ez bada lehiaketa egin, aurreko urtean lehiaketa horretan edo maila horretako edo altuagoko lehiaketetan (halakorik egonez gero) eskuratutako emaitzak egiaztatu beharko dira.
- 4.– Dagokion nazioarteko federazioaren ziurtagiria, azken 10 urteotan nazioartean izandako parte-hartzeen kopurua egiaztatzeko.
- 5.– Dagokion federazio espainiarraren ziurtagiria, modalitate horretako EAEko kirol-federazioa federazio horretan sartuta dagoela egiaztatzen duena, salbu eta modalitate horretako federazio espainiarra existitzen ez bada.
- 6.– Diru-laguntzaren xede den jardueraren sarreren eta gastuen aurrekontu orekatua (III. eranskina).
- 7.– Dagoeneko eginda dauden jardueretarako, agindu honetan egindako gastuak egiaztatzeko ezartzen diren dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.
- 8.– Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritza ekitaldian parte hartzearekin lotutako ekitaldi publikoetara gonbidatzeko konpromisoa, diru-laguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; azken egoera horretan, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten dokumentu guztietan adierazi beharko dute hori.
- 9.– Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak diru-laguntza emateko beharrezko irizten duen adina dokumentazio osagarri eskatu ahal izango du.
8. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.
- Eskabidea izapidetara onartzeko eskatzen diren dokumentu batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, edo eskabidea balioesteko aurkeztutako dokumentazioan akatsak aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari huts-egitea konpontzeko edo aginduzko dokumentuak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, aurrez dagokion ebazpena emango da.
9. artikulua.– Programa kudeatzeko eskumena duen organoa.
- Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak du agindu honetan araututako diru-laguntzen programa kudeatzeko eskumena.

10. artikulua.– Balioespen-batzordea.

1.– Balioespen-batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak eta dokumentazioa aztertzeko. Honako hauek osatuko dute batzordea: Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kiroletako zuzendariak (batzordeko presidentea izango da) eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak izendatutako arlo horretako bi teknikarik (horietako bat idazkaria izango da).

2.– Era berean, balioespen-batzordearen bileretara bertaratu ahal izango dute, hitza bai baina botorik gabe, azertu beharreko gaien inguruan jakintza espezifikoa duten pertsonak, bertaratuen gehiengoak onartuz gero.

3.– Balioespen-batzordea eratzerakoan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, 3.7 artikuluan ezarritakoa beteko da.

4.– Balioespen-batzordearen osaketa eragingarria EHAA n argitaratuko da, eratu aurretik, interesa duen edozeinek aukera izan dezan beren ezespen-eskubidea baliatzeko, lege ezarritako egoera eta baldintzetan.

5.– Balioespen-batzordeak egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahalko dizkie eska-tzaileei, aurkeztutako eskabideak behar bezala azertu ahal izateko beharrezkoa dela irizten badi; era berean, beharrezkotzat jotako txosten teknikoak ere eskatu ahalko ditu.

6.– Batzorde horrek arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du, ezarritako esleipen-irizpi-deetan oinarrituta, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari helaraziko dio.

11. artikulua.– Eskabideak balioesteko eta hautatzeko irizpideak.

Balioespen-batzordeak aztertuko ditu jasotako eskabideak, eta ondoren zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu jarraian aipatzen den baremoaren arabera:

1.– Probaren maila (45 puntura arte).

● Programa olinpikoa: 20 puntura arte:

– Proba olinpikoa: 20 puntu.

– NBOk onartutako nazioarteko federazio baten proba ez olinpikoa: 7,5 puntu.

– NBOk onartu gabeko nazioarteko federazio baten proba ez olinpikoa: 0 puntu.

● Lehiaketa-maila: 10 puntura arte:

– Nazioarteko goi-mailako lehiaketa: 10 puntu.

– Nazioarteko bigarren mailako lehiaketa: 5 puntu.

– Nazioarteko hirugarren mailako lehiaketa: 0 puntu.

● Lehiaketan sartzeko sistema: 10 puntura arte:

Lehiaketan sartzeko sistemaren zailtasuna balioetsiko da; 10 puntura arte emango zaizkie aurre-sailkapena duten lehiaketei, eta 0 puntu nahieran sartzeko edo gonbidapen bidezko sistema dutenei.

● Lehiaketa-esparrua: 5 puntura arte:

– Mundukoa: 5 puntu. Lehiaketa bat mundu-eremukoa dela ulertuko da hiru kontinentetako edo gehiagotako lehiakideak baditu.

– Kontinentekoa: 0 puntu.

2.– Kirolarien maila (10 puntura arte).

●? Azken 10 urteetako nazioarteko parte-hartzearen jarraitutasuna (5 puntura arte).

– 7 parte-hartze baino gehiago azken 10 urteetan: 5 puntu.

– 4tik 7 parte-hartzera azken 10 urteetan.

– Parte-hartze 1etik 3ra edo gutxiago azken 10 urteetan: 0 puntu.

●? Eusko Jaurlaritzaren edo Kirolen Kontseilu Gorenaren goi-mailako kirolarien zerrendetan dauden euskal kirolariak (5 puntura arte).

– Kirol indibidualak:

kirolari 1: 5 puntu.

– Talde-kirolak:

2 kirolari: 5 puntu.

Kirolari 1: 0 puntu.

3.– Aurrekontu-faktoreak (25 puntura arte).

– Mugiarazitako kirolarien eta langile teknikoen kopurua (15 puntura arte): puntu 1 pertsonako, 15 puntura arte gehienez.

Gehienez, kirolariengatiko 13 puntu eta teknikariengatiko 2 puntu balioetsiko dira.

– Jardunaldi-kopurua (2,5 puntura arte).

Jardunaldi-kopurua 2,5 puntura arte balioetsiko da.

– Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (7,5 puntura arte).

○ Europa:

- 1.000 km-ra arte = puntu 1.

- 1.000 - 2.000 km = 2,5 puntu.

- 2.000 km < = 5 puntu.

○ Afrika, Amerika, Asia: 6 puntu.

○ Ozeania: 7,5 puntu.

Kirol-diziplina berean eta kirol-maila bereko lehiaketetarako erakunde batek baino gehiagok aurkezten badute eskabidea, kiroletako azterketa tekniko bat egingo da, eta eskuratutako puntuazioak aldatu ahal izango dira horiek ordenara egokitzeko.

4.– Jardunaldi-kopurua (20 puntura arte):

– Lau lehiaketa edo probatik gora: 20 puntu.

– Lau lehiaketa edo proba: 15 puntu.

– Hiru lehiaketa edo proba: 10 puntu.

– Bi lehiaketa edo proba: 5 puntu.

– Lehiaketa edo proba bat: 0 puntu.

Erakunde eskatzaileek eskabide bakar bat aurkeztu beharko dute, eskabide horretan zenbat lehiaketa edo proba sartzan diren gora behera, baina horietako bakoitza erantsita, balioesteko.

Eskabide bat lehiaketa bakar baten barruko hainbat lehiaketa edo probei dagokienean, artikulua honetako lehen hiru ataletan jasotako lehiaketa edo proba guztien batez bestekoa egingo da: probaren maila, kirolarien maila eta aurrekontu-faktoreak. Ondoren, hiru atal horietako batez besteko puntuei 4. atalari dagokion puntuak batuko zaizkie (lehiaketen edo proben kopurua).

12. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honen babesean emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek helburu bererako emandakoeekin, bai eta diruz lagundutako jarduera gauzatzean sortutako beste edozein sarrera edo baliabiderek ere, betiere, guztiak kontuan hartuta jarduerak erakunde onuradunari dakarkion kostua gainditzen ez bada. Gain-finantzaketarik badago, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da aurkeztutako aurrekontua orekatu arte.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak eman eta jakinaraziko du, balioespen-batzordeak helarazitako proposamena aztertu ondoren, deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen emakida, sei hilabeteko epean, deialdia egiteko Agindu honek eraginak dituen egunetik zenbatzen hasita. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, guztiek horren berri izan dezaten.

2.– Ebazpen-epea igaro ondoren interesdunak horren berri jaso ez badu, eskabidea ezetsi egin zaiola ulertu ahalko da, hala xedatzen baitu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44 artikuluan.

3.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, agindu honen 8. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar bada, ebazpena emateko epea eten egingo da izapide horrek eskatzen duen bezainbat denboraz, jakinarazpena jaso eta horri erantzuteko epearen arabera.

4.– Izapideetarako bide presentziala baliatuz gero, jakinarazpena gauzatutzat joko da azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta kasu bakoitzean ezarritako epea jakinarazpena betetzat jotzen den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.

5.– Izapideak telematikoki eginez gero, 21/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, jakinarazpena gauzatutzat joko da interesdunak, horren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak haren jasotzea elektronikoki sinatzen duen unean, eta kasu bakoitzean ezarritako epea jasotzea elektronikoki sinatzen den egunaren biharamunean hasiko da zenbatzen.

Jakinarazpenaren xedea erakunde interesatuaren edo, hala badagokio, horren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren eskura (aipatutako Dekretuak adierazten duen helbide elektronikoa) jartzen denetik hamar eguneko epea igaro bada eta erakunde edo pertsona horrek ez badu jakinarazpen horren edukira jo, jakinarazpen horri uko egin diola ulertuko da. Halakoetan, izapidea gauzatutzat joko da prozedurak aurrera jarraituko du, salbu eta, ofizioz edo pertsona edo erakunde hartzaileak hala eskatuta, eduki horietara jotzeko ezintasun tekniko edo materialik egon dela egiaztatzen ez bada.

6.– Jakinarazitako ebazpenaren aurka, edo ebazteko epea igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek gorako errekurtoa jar dezakete Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren aurrean, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 114. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

14. artikulua.– Diru-laguntza ordaintzea.

Bi alditan ordainduko da diru-laguntza. Lehenengo ordainketa 2014an egingo da, diru-laguntza onartu ostean, 15.a) artikuluan ezarritako epea berariazko uko-egiterik gabe igaro ostean. Onartutako zenbatekoaren ehuneko hirurogeita biari dagokion zenbatekoa emango da lehenengo ordainketa horretan. Bigarren ordainketa, gainerako zenbatekoari dagokiona, 2015ean egingo da, diru-laguntza 16. artikuluan xedatutako moduan justifikatu ondoren.

15. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek beti bete beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen testu bateginaren, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoaren, 50.2 artikuluan ezarritako bete-behar-erregimena; zehazki, honako hauek bete beharko dituzte edonola ere:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean ez badiote diru-laguntzari idatziz eta espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Aurkeztu den aurrekontuan agertzen diren gastuak ordaintzeko erabili beharko da diru-laguntza, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenarekin bat.

c) Ekonomia Kontrolerako Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jakinaraztea eskatutako informazioa, deialdi honetan jasotako diru-laguntzei buruzkoa.

d) Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritzari programaren exekuzioari buruz eskatzen dion informazio guztia ematea.

e) Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Kirol Zuzendaritza jardunaldia aurkezteko egingo diren ekitaldi publiko guztietara gonbidatzea, eta jarduera gauzatzen den artean ikusteko moduko tokian adieraztea Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren diru-laguntza jaso duela jarduerak, diru-laguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; hala bada, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten dokumentu guztietan adierazi beharko dute hori.

f) Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekitaldi guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak agintzen duenari jarraituz. Gizon eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez dagoela bermatzea.

16. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

Justifikazioak bide presentzian aurkezteko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzara jo beharko da 2015eko martxoaren 31 baino lehen, Agindu honetan eskabideak aurkezteko ezarritako jarraibideei men eginez.

Frogagiri horiek baliabide elektronikoz ere aurkeztu ahal izango dira, webgune honetan:

<http://www.euskadi.net/misgestiones>

Egiaztagiriak:

a) Diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko memoria zehatza; zer jarduera egin eta zer emaitza eskuratu diren adierazi behar da.

b) Egindako gastuen jatorrizko ziurtagiriak, edo, hala badagokio, fotokopia konpultsatuak, emandako diru-laguntzaren kopuruaren adinako zenbatekoz.

c) Diru-laguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzen arabera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa izan dutela berariaz adierazten duten dokumentu guztien aleak (dokumentu grafikoak, fotografikoak edo ikus-entzunezkoak).

d) Ekitaldian parte hartzeak eragindako kostu-kontuen behin betiko balantzea; diru-sarrera eta gastu guztiak adierazi behar dira bertan. Bereziki jaso behar dira helburu berarekin eskuratutako gainerako laguntzen zerrenda, eskabideak aurkezteko unean haiek eraginkor izango ziren jakiterik ez bazegoen (IV. eranskina).

17. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere diru-laguntzaren xedea bete bada– edo beste erakunde publiko zein pribatuetatik beste laguntzaren bat jaso bada, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Horretarako, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoa doitzeko.

18. artikulua.– Arauak ez betetzea.

1.– Ez-betetze izango dira honako hauek:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoe-tan erabiltzea.

b) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza ematerakoan ezar-tzen direnak ez betetzea.

c) Hala badagokio, diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako zenbatekoa ez itzultzea dagokion epean.

d) Beste xedapenen batek izaera orokorrez ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

2.– Aipatutako egoera horietako bat gertatu dela egiaztatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dira zaizkio, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren arabera (hurrenez hurren, 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauetarako buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaiki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregi-mena eta eginbeharrak ezartzen dituen).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari

buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzaren «Kiroletako laguntzak eta diru-laguntzak» izeneko fitxategian jasoko dira, eta deialdian parte hartzen duten pertsonak berriaz ematen dute datu horiek tratatzeko eta argitaratzeko baimena. Fitxategi hori arau honen barrukoa da: 2006ko uztailaren 27ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datu pertsonalen fitxategi jakin batzuk arautzen dituen (EHAA, 173. zk., irailaren 11koa). Agindu hori beste honek aldatu zuen: 2010eko azaroaren 9ko Agindua (EHAA, 20. zk., 2011ko urtarrilaren 31koa).

Datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, DPBLk berriaz aitortzen dituen datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta aurkatu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzarekin harremanetan jarritik (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 1a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2014ko uztailaren 14a, astelehena

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA

2014AN EGINGO EDO HASIKO DIREN KIROL-LEHIAKETA OFIZIALETAN,
NAZIOARTEKO ESPARRUA ETA IZAERA DUTENETAN, KATEGORIA
ABSOLUTUAN PARTE HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

ESKATZAILEA

Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

 TITULARRA

Izena / Erakundearen izena

Identifikazio- agiria Zenbakia

Telefonoa

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen lurraldea/probintzia.....

 ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen izena

Lehen abizena

Bigarren abizena

Identifikazio- agiria Zenbakia

Telefonoa

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO HELBIDEA

 Postaz

Helbidea

Posta-kodea

Udalerrria

Probintzia

Estatua

 Helbide elektronikoa

OHARTARAZPENAK JASOTZEKO DATUAK

Doaneko ohartarazpen-sistema bat erabil dezakezu, helbide elektronikoaren bidez edo SMS bidez, jakinarazpen edo komunikazioaren bat bidaltzen dizuten bakoitzean horren berri ematen dizuna.

Helbide elektronikoa edo mugikorreko zenbaki bat baino gehiago eman nahi izanez gero, puntu eta komaren [;] bidez bereizi.

Helbide elektronikoa

SMS

ADIERAZI ZER HIZKUNTZATAN JASO NAHI DITUZUN JAKINARAZPEN, KOMUNIKAZIO ETA OHARTARAZPENAK

Euskara Gaztelania

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**BATERAGARRITASUN ADIERAZPENAK**

- Ez naizela xede honekin berarekin inongo administrazio publiko edo erakunde probaturen diru-laguntzarik jasotzen ari.
- Diru-laguntza bat eskatu diodala administrazio publikoren edo erakunde pribaturen bati eta eman egin didatela (puntu honetako datuak III. eranskineko agirian zehaztu behar dira)
- Diru-laguntza bat eskatu diodala administrazio publikoren edo erakunde pribaturen bati eta ebazteke dagoela (puntu honetako datuak III. eranskineko agirian zehaztu behar dira)

ERREGISTROAN INSKRIBATUTA EGOTEAREN ADIERAZPENA

- Erakunde eskatzailea legez eratuta dagoela, eta Eusko Jaurlaritzaren kirol-erakundearen erregistroan izena emanda:

.....

Data:

KONPROMISOAK

- Erakunde eskatzaileak bi sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatuko duela kirol-lehiaketetan.
- Erakunde eskatzaileak hedatzeko edozein bitartekotan adieraziko duela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailaren laguntza izan duela ekitaldian parte hartzeko, eta ekitaldian parte hartzearekin lotutako ekitaldi publikoetara gonbidatuko duela Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza, diru-laguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; azken egoera horretan, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten dokumentu guztietan adierazi beharko dute hori.

BESTE ADIERAZPEN BATZUK

Ez daukadala diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen didan zigor administratibo edo penalik, eta ezta diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, azken xedapenetako seigarrenean xedatzen duena aintzat hartuta.

Egunean ditudala indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

Egiazkoak direla eskabidean eta horrekin batera aurkeztutako agirietan adierazitako edukiak.

Betetzen ditudala laguntza hauen onuradun izateko baldintzak, beti ere indarrean den legedian jasotzen direnak.

ONESPENAK**Identitate-datuak**

- Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari datu horiek eskumeneko Administrazioan egiaztatu edo frogatzeko, bide elektronikoaren bidez edo, dagokionean, eskuragarri dauden bideak baliatuz.

2014ko uztailaren 14a, astelehena

Bizilekuari buruzko datuak

- Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari datu horiek dagokion Bizilekuari buruzko Datuak Egiartzatzeko Zerbitzuan edo eskumeneko Administrazioan egiaztatu edo frogatzeko, bide elektronikoen bidez edo, dagokionean, eskuragarri dauden bideak baliatuz.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafeak

- Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari datu horiek eskumeneko Administrazioan egiaztatu edo frogatzeko, bide elektronikoen bidez edo, dagokionean, eskuragarri dauden bideak baliatuz.

Hirugarrenen alta

- Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari datu horiek eskumeneko Administrazioan egiaztatu edo frogatzeko, bide elektronikoen bidez edo, dagokionean, eskuragarri dauden bideak baliatuz.

DATU PERTSONALAK BABESTEIA.

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan (DPBL) xedatutako betez, Eusko Jauriaritzako **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Gazteria Sailaren Gazteria eta Kiroletako Zuzendaritzak** jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren KIROLETARAKO LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK** izeneko bere titulartasuneko fitxategi batean sartuko direla. Fitxategi hori **2006ko uztailaren 27ko AGINDUAK** arautzen du, eta bere xedea laguntza-espeditateak kudeatzea da. Horren berri Datuak Babesteko Euskal Agentziari emango zaio aldez aurretik eta fitxategiak datuen segurtasun osoa bermatzeko adinako segurtasun-neurriak ditu; horrela, ez zaizkio datu horiek beste inori jakinaraziko, legez gaitutako egoeretatik kanpo.

Datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, DPBLk berariaz aitortzen dituen datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta aurkatu ahal izango dira Eusko Jauriaritzako **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzarekin** harremanetan jarriz (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Herri Administrazioak emandako datuak aztertu eta dagozkion egiaztaketak egin ahalko ditu laguntzak zuzen esleitzeko.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

2014ko uztailaren 14a, astelehena

II. ERANSKINA

JARDUERAREN MEMORIA

PROBAREN MAILA

Balioetsi beharreko lehiaketak edo probak
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Proba programa olinpikoan sartuta dagoen ala ez
Proba olinpikoa <input type="checkbox"/>
NBOk onartutako nazioarteko federazio baten proba ez olinpikoa <input type="checkbox"/>
NBOk onartu gabeko nazioarteko federazio baten proba ez olinpikoa <input type="checkbox"/>

Lehiaketa-maila
Nazioarteko goi-mailako lehiaketa <input type="checkbox"/>
Nazioarteko bigarren mailako lehiaketa <input type="checkbox"/>
Nazioarteko hirugarren mailako lehiaketa <input type="checkbox"/>

Lehiaketan sartzeko sistema.
Lehiaketara sartzeko aurre-sailkapenik egonez gero, adierazi.
Aurre-sailkapena nazioarteko federazioak ezarritakoa edo baimendutakoa <input type="checkbox"/>
Aurre-sailkapena federazio nazionalak ezarritakoa edo baimendutakoa <input type="checkbox"/>
Nahi duena sartzeko edo gonbidapen bidezko sistema <input type="checkbox"/>
.....
.....
.....

Lehiaketa-eremua (azaldu kontinente bateko edo gehiagotako kirolariek hartzen duten parte)
Mundua. Europa <input type="checkbox"/> ; Amerika <input type="checkbox"/> ; Asia <input type="checkbox"/> , Afrika <input type="checkbox"/> ; Ozeania <input type="checkbox"/>
Kontinente-eremua <input type="checkbox"/>

KIROLARIEN MAILA

Balioetsi beharreko lehiaketan edo lehiaketetan kirolariak eskuratutako postua.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Artean ez bada lehiaketa egin, aurreko urtean lehiaketa horretan edo maila horretako edo altuagoko lehiaketetan (halakorik egonez gero) eskuratutako emaitzak.

.....

.....

.....

Parte-hartzearen jarraitutasuna (nazioarteko parte-hartzaileen kopurua azken 10 urteetan).

.....

.....

.....

Eusko Jaurlaritzaren edo Kirolen Kontseilu Gorenaren goi-mailako kirolarien zerrendetan dauden euskal kirolariak

.....

.....

.....

.....

AURREKONTU-FAKTOREAK

Mugiarazitako kirolarien edo langile teknikoen kopurua / Jardunaldiak / Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (xehetasunez adierazi beste norabait joan den kirolari eta langile tekniko bakoitzeko)

1. lehiaketa (lehiaketaren izena - tokia)

Kirolariak (kop. eta izenak):

.....

.....

Teknikariak (kop. eta izenak):

Jardunaldiak (kop.):

Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (km):

2. lehiaketa (lehiaketaren izena - tokia)

Kirolariak (kop. eta izenak):

.....

.....

Teknikariak (kop. eta izenak):

Jardunaldiak (kop.):

Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (km):

3. lehiaketa (lehiaketaren izena - tokia)

Kirolariak (kop. eta izenak):

.....

.....

Teknikariak (kop. eta izenak):

Jardunaldiak (kop.):

Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (km):

4. lehiaketa (lehiaketaren izena - tokia)

Kirolariak (kop. eta izenak):

.....

.....

Teknikariak (kop. eta izenak):

Jardunaldiak (kop.):

Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (km):

5. lehiaketa (lehiaketaren izena - tokia)

Kirolariak (kop. eta izenak):

.....

.....

Teknikariak (kop. eta izenak):

Jardunaldiak (kop.):

Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (km):

6. lehiaketa (lehiaketaren izena - tokia)

Kirolariak (kop. eta izenak):

.....

.....

Teknikariak (kop. eta izenak):

Jardunaldiak (kop.):

Lehiaketa-tokira bitarteko distantzia (km):

Lehiaketa- edo proba-kopurua

.....

.....

.....

Interesgarri irizten diren jarduerari buruzko beste datu batzuk

.....

.....

.....

2014ko uztailaren 14a, astelehena

III. ERANSKINA
AURREKONTUA (1)

GASTUAK	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Joan-etorrietarako gastuak Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak	
Ostatu-gastuak Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak / zenbat egunez	
Beste gastu batzuk	
Guztira	

SARRERAK		
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	EGOERA
Eskatzailearen ekarpena		
Erakunde publikoen ekarpenak		
Erakunde pribatuen ekarpenak		
Beste sarrera batzuk		
Guztira		

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA

(1) Aurrekontuak orekatua izan behar du, hau da, gastuak berdin sarrerak (eskatutako diru-laguntza barne)

2014ko uztailaren 14a, astelehena

IV. ERANSKINA

BALANTZEA

GASTUAK			
KONTZEPTUA	Aurrekontuan jasotakoa	Gauzatutakoa	Justifikatua
Joan-etorrietarako gastuak Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak			
Ostatu-gastuak Azaldu zer tokitara izan diren joan-etorriak / zenbat pertsonak egin dituzten joan-etorriak / zenbat egunez			
Beste gastu batzuk			
Guztira			

SARRERAK			
KONTZEPTUA	Aurrekontuan jasotakoa	Gauzatutakoa	Justifikatua
Eskatzailearen ekarpena			
<i>Erakunde publikoen ekarpenak</i>			
Erakunde pribatuen ekarpenak			
Beste sarrera batzuk			
Guztira			

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA